



errigora

errigora.eus

Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



eko



eko



eko



eko



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Eutsi gureari!

Eusteko, zeri eta **gureari**. Baina ez da dei bat lortutakoari, galtzeko beldurrez, atxikita gelditzeko deia da. Bada dei bat, baina egindako bideari begiratu, oinak gaurko lurrean sentitu eta aurrerako pausuak emateko deia.

Zailtasunak ez dira falta. Olioaren prezioaren eromenari begiratzea baino ez dugu, merkatu logikak zenbateraino agintzen duen jabetzeko, eta nekazal ekoizpenaren errealitatea zein gordina den jabetzeko hiru zertzelada aski dira. Errigoraren komunitatea bera ere (ekoizleongandik hasi eta kontsumitzaileonganaino), testuinguru horrek harrapatuta gaude eta kontraesanak daramatzagu kolkoan, jakina.

Eta metatu ditugun **ahalak**? Udaberriro elkartzen den 10.000tik gora kontsumitzaileen giharra, euskalgintza eta ekoizpen mundua elkarlotzea, bertako ekonomia sustatzeko gaitasuna, ekoizpen agroekologikoa bultzatzeko egindako apustuaren emaitzak; boluntario, ekoizle, euskaltzale, kontsumitzaile, batzordekide zein profesional bezalako osatutako komunitatearen aberastasuna...

Ekoizle familiako ardogileen argazkia Errigoraren gaitasunen ikur izan daiteke: erreleboa jaso duten gazteak, lurrari emanak, ekoizpen eredu baliotsuetara engaiatuak, herriari lotuak, etorkizunari atxikiak... Udaberriko kanpaina lehenengoz leku egin dute ardogile horiek.

Ametsak gureganatu ditugu, duela 10 urte urrun ikusten genituenak: piper ekologiko lurra ugaritzean edo lekaleak sustatzeko emandako pausuak edo kanpainak bere horretan merkaturatze bide bezala suposatzen duten grafiketako gaztaitxo atalaren betetasuna. Nafarroako oliba-olio ekoizpenaren %5,7 banatzera heldu izana edo Euskal herriko 20 jantoki kolektibotan ireki ditugun ateak.

Are, **amets berriak** ere ereinten ari gara. Nekazariarentzat lan baldintza duinagoak eskuratzea bezalakoak, edo merkatu logikatik ateratzeko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko epe-erdiko akordioak bezalako ametsak. Kontsumo-elkarte eta eragileekin aliantza-sareak osatzea bezalakoak, edo ekoizpen- eta elaborazio-bitarteko kolektiboak eskuratzea. Lurra erostea, lur komunaletan hitzarmenak lortzea, ontziratze azpiegiturak gureganatzea, olio errota komunitarioak sustatzea...

Aurtengo udaberriko kanpaina gureari eutsi nahi genioke beraz. Zailtasunez jakitun, gure ahaletatik ametsetarako bidea marraztu ez ezik, bidea egiten jarraitu. "Eutsi gureari!" diogunean horixe adierazi nahi genuke, eta noski milaka despentsa betetzen segi!

Eskaintza

Berrikuntzak

Azken urteetako eskema errepikatuko dugu aurtengoan ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen duguna eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bidoi handietan eskainiko dugu eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan, arroza izan ezik 6ko lotetan banatuko dena. Aurreko urteko eskaera altuen ondorioz, eskaintza zabalagoa eta anitzagoa da.


Ohikoa denez, hainbat berrikuntza izango dira aurtengoan:

- Ardoa**

Ardo bereziak: Lote honetan Errigoran parte hartzen duten upategietako ardo bitxiak aukeraketa bat aurkituko duzue: sulfitorik gabeko ardoak, ardo onduak izan gabe frutaren freskotasuna eta egur-ukitua mantentzen duten ardo erdionduak, beratze karbonikoko ardoak... Azken batean, ekonomikoa izan arren berezia den ardo sorta bat.

Ardo gorenak: Lote honetan ardoen lan-ildo klasikoan murgiltzen gara. Eta bertan, ardo onduak aurki ditzakegu, dedikazio handiagoko behar duten elaborazio luzeako ardoak.

- Babarrun gorriak:** Aurtengo eskaintzan ere babarrun gorriak aurkituko ditugu, ekologikoak eta konbentzionalak.
- Arroza (izakinak mugatuak):** Arrozarentzako urte txarra izan da eta oso mugatua da eskaintzen ahal duguna. Beraz, arroza nahi izanez gero egin eskaera lehen bait lehen gabe ez gelditzeko.

<p>BERRIA</p>  <p>Ardo bereziak Ardo bereziak 750ML-KO 6 BOTILA 29€ 4,83€/U</p>	<p>Zainzuriak Zainzuri zurri lodak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI 47€ 3,91€/U</p>	<p>Zainzuriak Zainzuri zurri lodak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI 46€ 3,83€/U</p>	<p>Piperrak Piperrak piperrak (8/12) 250ML-KO 12 ONTZI 40€ 3,33€/U</p>	<p>Piperrak Piperrak piperrak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI 40€ 3,33€/U</p>	<p>Orburuak Orburu bitxiak 720ML-KO 12 ONTZI 84€ 7,00€/U</p>
<p>BERRIA</p>  <p>Ardo gorenak Ardo gorenak 750ML-KO 6 BOTILA 44€ 7,33€/U</p>	<p>Orburuak Orburu bitxiak 720ML-KO 12 ONTZI 71€ 5,91€/U</p>	<p>Kardua Kardua zurria 720ML-KO 12 ONTZI 27€ 2,25€/U</p>	<p>Kardua Kardua zurria 720ML-KO 12 ONTZI 25€ 2,08€/U</p>	<p>Menestra Menestra 720ML-KO 12 ONTZI 79€ 6,58€/U</p>	<p>Arbendolak Arbendolak 1200G-KO 12 PAKETE 30€ 2,5€/U</p>
<p>BERRIA</p>  <p>Barazkiak Barazkiak 720ML-KO 12 ONTZI 39€ 3,25€/U</p>	<p>Barazkiak Barazkiak 720ML-KO 12 ONTZI 32€ 2,66€/U</p>	<p>Tomatea Tomatea 370ML-KO 12 ONTZI 22€ 1,83€/U</p>	<p>Tomatea Tomatea 370ML-KO 12 ONTZI 16€ 1,33€/U</p>	<p>Lekaleak Lekaleak 500G-KO 12 PAKETE 35€ 2,91€/U</p>	<p>Pasta Pasta 400G-KO 12 PAKETE 38€ 3,16€/U</p>
<p>Potxak Potxak 720ML-KO 12 ONTZI 50€ 4,16€/U</p>	<p>Babarrunak Babarrun gorriak 720ML-KO 12 ONTZI 40€ 3,33€/U</p>	<p>Babarrunak Babarrun gorriak 720ML-KO 12 ONTZI 32€ 2,66€/U</p>	<p>Txitxiriak Txitxiriak 720ML-KO 12 ONTZI 27€ 2,25€/U</p>	<p>Arroza Arroza KILOKO 6 PAKETE 24€ 4,00€/U</p>	<p>Arroza Arroza KILOKO 6 PAKETE 26€ 4,33€/U</p>
<p>Arroza Arroza KILOKO 6 PAKETE 26€ 4,33€/U</p>	<p>Arbekina Arbekina 5 LITROKO ONTZIA 56€ 11,20€/U</p>	<p>Arroitz Arroitz 5 LITROKO ONTZIA 54€ 10,80€/U</p>	<p>Pikual Pikual 5 LITROKO ONTZIA 47€ 9,40€/U</p>	<p>Enpeltre Enpeltre 5 LITROKO ONTZIA 47€ 9,40€/U</p>	<p>Arbekina Arbekina 5 LITROKO ONTZIA 47€ 9,40€/U</p>

Eskaerak

Hainbat produkturen izakinak mugatuak izaki, ezinbestekoa izango zaigu unean uneko stockaren kontrola eramatea. Beraz, aurrez ez da izango eskuorri bidez eskaerak egiteko aukerarik. Izan ere, eskuorriak multzoka jasota ez genduzke eskaeren hurrenkera kronologikoa ezagutzeko modurik. Gauzak horrela, gure **webgunea izango da eskaerak jasotzeko bide nagusia**.

Hala ere, eskuorri bidez eskaerak egiteko aukerarik ez izatea inorentzat muga izan ez dadin, **telefono bidez ere egin ahal izango dira eskaerak**, azken kanpaina bietan bezala. Zenbakiak mantendu egingo dira: Hegoaldetik deitzeko +34 848 87 12 23; Ipar Euskal Herritik, ostera, +33 532 09 35 45. Aurtengoan, arreta-ordutegia astelehenetik ostiralera, 9:00etik 13:30era.

Bi bide hauetatik aparte heltzen zaizkigun eskaerak erregistratzeko modua ere izango da, aurrekoetan bezala, web plataformaren bidez. Hala ere, garrantzia bizikoa izango da momentuan erregistratzea. Bestela, agortutako produktuak eskatu dituztenek produktuok ez jasotzeko arriskua dute, eskaera egitean oraindik agortu gabe egon zitezkeen arren.

Egutegia

- Eskaerak egiteko epea: otsailak 25 - martxoak 13.
- Datuak sartzeko epea: aparteko eskaerarik helduko balitzaigu, jaso ahala erregistratu (azken eguna martxoak 14).
- Behin betiko datuak: martxoak 15.
- *Online* ordainketa egiteko epea (eskaera egiteko unean egin ez badute):
 - Bi zatitan ordaintzeko (150€tik gorako eskaeren kasuan soilik): martxoak 31.
 - *Online* ordaintzeko azken eguna: apirilak 23.
- Deskargak (produktu guztiak batera):
 - Bizkaia: Apirilak 25-30
 - Ipar EH: Maiatzak 2-3
 - Nafarroa: Maiatzak 6-10
 - Araba: Maiatzak 2-3
 - Gipuzkoa: Maiatzak 13-20
- Eskudirutan jasotako diru-sarrerak: maiatzak 30era arte.



			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29			

Otsaila

 Kanpaina



				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Martxoa

 Kanpaina
 15: Behin-behineko datuak
 31: Bi zatitan ordaintzeko epea



1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

Apirila

 Banaketa
 Online ordaintzeko epea

		1	Nafarroa 2 Ipar EH	Nafarroa 3 Ipar EH	4	5
6 Nafarroa	7 Nafarroa	8 Nafarroa	9 Araba	10 Araba	11	12
13 Gipuzkoa	14 Gipuzkoa	15 Gipuzkoa	16 Gipuzkoa	17 Gipuzkoa	18 Gipuzkoa	19 Gipuzkoa
20 Gipuzkoa	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Maiatza

 Banaketa
 Eskuz jasotako diru-sarrerak bidaltzeko epea

Erronkak

- **Eskatzaile ohiak**

Aurreko kanpainan, euskarari puzkan, eskatzaile ohietara iristeko ahalegina egin dugu eta banaketa gune batzuetan modu batera edo bestera lortu da, emaitzetan eraginez. Horregatik uste dugu, kanpainetan kontuan izatekoak direla eskatzaile ohiak, batzuetan ez baitute eskatzen data pasatu zaielako edo adi ez direlako egon. Historia botoiari sakatuz aurreko urteetako eskatzaileen zerrenda topatuko duzue. Haiei zuzenean mezua bidaliz, gogoratzen ahal dizkiegun eskaerak egiteko datak.

- **Eremu berrietara iritsi**

Sinetsita gaude oraindik Euskal Herriko txoko askotan ez dutela errigora ezagutzen, eta jakin badakigu sarea dela gure pontentzialik handiena. Horregatik auzolan komunikatibo erraldoi honentzat euskarri berri bat egin dugu: Errigora zer den ez dakiten talde berrietara iristeko eskuorria. Errigora azaltzen lagunduko zaituztelakoan agian eskoletan zabaldu daiteke, elkarteetara eraman, tabernetan utzi, azoka batean banatu... Ziur gara erabilera asko bururatuko zaizkizuela.

- **Taldetxoak sortu herrietan**

la 300 banaketa gune irekiko dira kanpaina honetan eta bakoitzean modu ezberdin batean funtzionatzen duzue. Praktika onak zabaldu nahiean, konturatu gara banaketa gune batean pertsona bat baino gehiago daudenean eskatzaile gehiagorengana iristea lortzen dutela. Horregatik ere, animatzen zaituztegu kanpainan eta banaketan lagunduko duten aliatuak bilatzera edo taldetxoak sortzera.

Plataformaren erabilera eta sarekidearen lanak pausoka

- **Kanpaina aurretik (otsailean)**

1. Banaketa eguna eta orduak zehaztu, eta plataformetan jarri (beheko irudian beltzez) edo arduradunari esan.
2. Kanpaina herrian zabaltzeko erabiliko diren estrategiak pentsatu. Bitartekoak ere plataforman dituzue (beheko irudian horiz).

Eskutik eskura 2024
Kanpainako bitartekoak

TXOBERNE
Anbietako barrenkalea 3
48130 Bakio (Bizkaia)

Mapa ikusi

Kokapena editatu

Gune hau kontsumitzaileei erakutsiko zaie eta **webgunean eskaerak egiteko aukera** izango dute.

Deskarga	Banaketa
Txanda #1	Txanda #1

2023/11/24(e)tik aurrera. Guneko arduraduna jarriko da zurekin harremanetan.

Informazioa editatu

Eskaerak

€ Ordainketak

Abisuak

Historia

Bitartekoak

- **Kanpaina egunetan (otsailaren 25 - martxoaren 13)**

1. Informazioa zabaldu


- Kartelak jarri.
- Eskuorriak banatu.
- Whatsapp ereduak zabaldu: Zabaltzeko modurik eraginkorrena mezuak pertsonalizatzea dela jakin badakigu, baina zuen lana erreztu aldera, egindako mezuak bidaltzen dizkizuegu. Zuen esku horrela bidaltzea edo jasoko duenari begira aldatzea. Irudiak jasotzen ditugun egunean estadoetan jartzea ere eraginkorra izan daiteke.
- Errigoraren sare sozialak jarraitu eta elkarbanatu argitaratzen dena: Egunero igotzen da zerbait kanpaina zehar, zuen inguruan interesgarria izan daitekeena edo zuen gustokoena elkarbanatzea aholkatzen dugu.
- Buzoneoak.
- Eskatzaile ohiei informazioa bidali (informazio hau goiko irudiko "Historia" atalean duzue, karratu morea).

2. Eskerak egiten lagundu

- "Eskaerak" atalean baduzue eskaerak sartzeko aukera, banaka edo taldean.




- AHOLKUA: Guk banaka hobesten dugu, horrela informazioa ordenatuta izango duzuelako. Taldean sartuz gero, zer dagokion nori nonbait gorde.



- **Kanpaina amaituta**

1. Hurrengo egunean eskaerak berrikusi, baten bat bikoiztua dagoen jakiteko. Hala izatekotan, arduradunari esan.
2. Denok Korrikara! Gure kilometroa Erriberan izango da martxoaren 17an 17:00etan Cadreitatik gertu, gonbidatuak zaudete!
3. Banaketa:
 - Eskaera orria deskargatu.



- Banaketa jaso (argi izan zer deskargatu behar duzuen, arazoak ekiditeko).
- Eskatzaileei gogoratu noiz etorri behar diren bila "abisuak" erabiliz.



- Banaketa egin.

4. Ordainketa:

- "Ordainketa" pestañan dagoen **kopuru zehatzaren** transferentzia egin maiatzaren 30a baino lehen.
- Garrantzitsua da hor dagoen **kontzeptua** erabiltzea.

Plataformaren azalpena zabaldu nahi baduzu ikusi honako bideo hau: <https://meta.errigora.eus/s/L3Rk4CxeX7xG2d9/download/WebgunearenErabilera.mp4>